

522/2022 Ebazpena, ekainaren 20koa, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez agindu baita argitaratu behar direla Osakidetzaren web-orrian 6 Lehentasuneko aldi baterako kontratazio-zerrenda behin betikoak (2018ko Kontratazio-zerrendak), modalitate hauetan: A.1. (Fakultatibo Medikoak) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda

Osakidetzako zuzendari nagusiak maiatzaren 28an emandako 1135/2015 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa eskuratzeko 2014-15eko Enplegu Publikorako Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak. (EHAA, 102 zk., 2015eko ekainaren 3).

2014-15eko Enplegu Publikorako Eskaintzaren ondoriozko aldi baterako kontratazio-zerrendak Osakidetza Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluak 2011ko maiatzaren 9an emandako Erabakiaren arabera arautzen dira (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6).

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariarena martxoaren 29ko 327/2022 Ebazpenaren bidez argitaratu ziren Osakidetzaren web-orrian 6 Lehentasuneko aldi baterako kontratazio-zerrenda behin-behinekoak (2018ko Kontratazio-zerrendak), modalitate hauetan: A.1. (Fakultatibo Medikoak) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Behin-behineko zerrenda horien aurka ezarritako erreklamazioak aztertu ondoren,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Aldi baterako kontrataziorako 2018ko 6 lehentasuneko behin betiko zerrendak Osakidetzako web-orrian argitaratzeko agintzea, modalitate hauetan: A.1 (Fakultatibo Medikoak) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Zerrenda horiek 2022ko ekainaren 21etik aurrera egongo dira indarrean.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Eazpen hau web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 20a



Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Sin.: Luisa Larrauri Ereñozaga

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD